

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Jostailuen liburutegia martxan jartzeko lehenbizi jostailuak eskuratu behar ditugu. Horretarako, jostailuak ekoizten dituzten hainbat enprekin hitz egingo dugu haien laguntza jasotzeko. Enpresak jostailu berriak ekarriko dizkugu eta honen truke guk publizitatea egingo diogu enpresari. Beti kontuan hartuta jostailu horiek kalitate- prezio honekoak izango direnak. Hasierako erosketa hau kantitate handian egingo dugu, horrela deskontu bat lortuko dugu.

Esan dugun bezala, hasierako jostailuak eskuratuko ditugu, denborarekin jostailuak berritzen joango gara. Gainera, hainbat joku erabilia haurrentzako ekintza berriak sustatuko ditugu. Behin jende kopuru txiki batek gure enpresaren berri duela herriko plazan Mundu Osoko Jostailuen Eguna antlatuko dugu. Egun honetan, munduko leku desberdinetako jostailuak erakutsiko ditugu, hurrek jolas dezaten eta gurasoek gure enpresaren berri edukitzeko. Gainera, egun hau aurrera eramateko aisialdirako hainbat taldekin jarriko gara kontaktuan (*Lezoko eta Oiartzungo Kuadrilategi taldeak*) eta Talde hauen laguntzarekin gure jostailuekin jokoak eta hainbat ekintza antolatzeko aukera izango dugu egunean zehar.

Lokalaren garbitasunari dagokionez, enpresa bat kontratatuko dugu. Enpresa hau gure lokala garbi mantentzeaz arduratuko da. Garbiondo enpresa kontratatuko dugu eta 17€ orduko kobratuko ditu.

Gure enpresak arrakasta edukitzen badu, gure lokala ondoko herrietan irekiko dugu ere. Hontarako langileak beharko ditugu, hau da, jendea kontratatuko dugu.